

TXOSTENAREN LABURPENA

Ezkutuko osagaia

Lan-esplotazioa Espainiako elikaduran



BIDEZKO
ELIKADURA

AURKIBIDEA

Exporta, explota, me expló	3
Elikadura globala	5
Nekazaritza-esportazioko plataformak	8
Frutak eta barazkiak	8
Txerri inperiala	14
Ontziratzen ere prekarietatea	18
Food delivery-a	22
Rider-ak	22
Sukalde eta supermerkatu mamuak	28
Ondorioa eta proposamenak	30



Floridablanca kalea 66-72
08015 Bartzelona
www.justiciaalimentaria.org

Egilea: Justicia Alimentaria

Ikertzailea: Ferrán García
(Justicia Alimentaria)

Ikerketaren koordinazioa: Ferrán García
eta Javier Guzmán (Justicia Alimentaria)

Lege-gordailua: B 19988-2022

Diseinua eta maketazioa:
www.puntoycoma.org

Azala: José A. Calvo
2022ko urria

Honako honen lankidetzarekin:



Argitalpen hau Eskubide Sozialak eta 2030 Agenda Ministerioaren finantza-laguntzarekin egin da. Argitalpenaren edukiaren erantzukizun eskusiboa JUSTICIA ALIMENTARIAK du, eta ez du nahitaez Eskubide Sozialen eta 2030 Agenda Ministerioaren iritzia islatzen.



Liburua «Aintzatespena – Ez komertziala» lizentziapean banatzen da, eta esteka honetan kontsulta daiteke hori: <http://creativecommons.org/choose/?lang=es>. ES. Argitalpenaren edukiak erreproduzitu ahal izango dira, betiere jatorria aipatzen bada eta helburu komertzialik ez badago tartean.





© tonnyshots/pixabay.com

EXPORTA, EXPLOTA, ME EXPLÓ

Gaur egungo elikadura-sistema globalizatuaren aukera nagusia ez dago erakusten duen horretan, ezkutatzen duen horretan baizik; eskulan prekarizatu eta esplotatuari esker du arrakasta ekonomikoa. Pertsona kalteberak laneko segurtasun-ezak harrapatuta, soldata baxuak, eskubideen galera eta lan- eta bizi-baldintza oso txarrak aipatu behar dira.

Izan ere, elikadura-sistemak ondo baino hobeto erakusten ditu ideologia neoliberalak ekonomiari ezarritako ezaugarriak: lanaren eta kapitalaren mugikortasun globala, lan-malgutasuna eta merkatuen deserregulatzeara.

Merkatu global horietan lehiatzeak ekoizpen-kostuak murriztea eskatzen du, eta hemen bete-betean sartzen da lan-baldintzak jaisteko lehiakortasun izugarria. Modu horretan, lan-prekarietatea enpresa transnazionalen arrakasta ekonomikoaren zutabeetako bat izango da.

Elikadura-sistema osoa zeharkatzen duen prekarietatea. Nekazaritzako ekoizpenetik, makrogranjetatik eta hiltegietatik hasi eta katearen azken mailara arte, hiri-paisaiaren parte bihurtu diren *rider-ekin* edo sukalde mamuen gorakada gero eta handiagoarekin. Ikus dezagun, baina aurretik sistema honetako funtsezko pieza bat aipatu behar dugu, Aldi Baterako Laneko Enpresak (ABLE).



ABLEak espainiaren estatuan legeztatuz iren eta 30 urte beteko diralaster, eta prekarietaterako bidean lehen mailako aliatu izan dira. Eskulan merkea eta malgua eskaintzen duten bitartekari bezala ezagutzen dira, baina haien jarduera haratago doa. Enpresa horiek izaera bikoitza dute: enplegura sartzeko mekanismo bezala eta giza baliabideak kudeatzeko instrumentu gisa.

Gaur egun, 250 bat ABLE daude Espainian, eta, 2021. urtean zehar, langileak lagatzeko 4.067.727 kontratu egin zituzten. Langileak lagatzeko kontratua ABLEren eta langilea lagako zaion enpresaren artean egiten da; hau da, ez da lan-kontratu bat, merkataritzako kontratu bat baizik.

Gogoratu behar da langileak beste enpresa batzuei lagatzeko kontratatzea, egoeraren araberrako premiei aurre egiteko helburuarekin, tradizioz debekatuta egon dela eta lan-ordenamenduak eskulanaren lege kanpoko trafikotzat hartu izan duela. 1994. urtean, ordea, ABLEak sartu eta legeztatzea baimendu zen Espainiako Estatuan. Lehenik eta behin, Langileen Estatutua aldatu zen, langileak lagatzea debekatzen zuena. Hortik aurrera, lege-aldamioak eraikitzen joan zen, eta lan-arloko behin-behinekootasunaren eta prekarietatearen kudeatzaile gisa finkatu ahal izan dira. 2012ko lan-erreforma ere nabarmendu behar da, ABLEak enplegu-agentzia gisa jardun ahal izatea ezarri baitzuen.

Azken finean, ABLEak prekarizazioan “adituak” diren erakundeak izatera iritsi dira, eta enpresei beren intereserako laneko formula onenak eta haien eskakizunetara ondoen egokitzen diren pertsonak eskaintzen dizkiete. Gazteek, emakumeek eta migratzaileek jasaten dute gehienbat enpresa horiek sortutako prekarietatea.

Nekazaritza-sektoreak gero eta kontratazio gehiago egin ditu azken urte hauetan ABLE bidez: %198 2011. urtearekin alderatuta.



© aleksandarlittlewolf/freepik.com

ELIKADURA GLOBALA

Globalizazioaren aroan, nekazaritzak eta abeltzaintzak jada ez dute azken produkturik (elikagaiak) ekoizten, nekazaritzako elikaduraren industriadako bitarteko ondasunak baizik, eta horrek supermerkatu globala hornitzen du. Eredu horretan, banaketa-sektoreak zeregin nagusia du.

Elikagaien produkzioaren eta eraldaketaren industrializazioak ekoizpen-lekuen eta ekoizpen-tekniken etxekotasunetik bereizten gaitu. Elikagaiak mundu osotik datoz orain, eta horiek gure begietatik urrun ekoizten eta eraldatzen dira. Osagai eta ezaugarri ezezagunak dituzten elikagaiak erosten eta kontsumitzen ditugu, teknika ezezagunek eta gutxi ulertuek ekoiztutakoak.

Ekoizpena, halaber, naturarekin duen lotura galtzen joan da; teknikak gero eta gehiago zehazten dituzte industria-sargaiek eta ez lurraldeek, urtarokotasunak edota ekoizpen-prozesuaren eta landatutako espezieen ezaugarri biologikoek. Logika industrialak ezarri da, eta funtsezkoa da elikagaiak denboran zehar irauteko eta distantzia luzeetan barrena bidaiatzeko gaitasuna izatea.



Horrez gain, beste bi ezaugarri garrantzitsu hartu behar dira kontuan: alde batetik, zerbitzuen sektorea elikaduran indartsu sartzea (jatetxeak, etxez etxeko janaria, e.a.), eta, bestetik, “elikadura-konbergentzia” deiturikoa; hots, produktu industrialak oro har zabaltzea, elikagaiak prozesatzeko eta banatzeko sistemaren globalizazioak sustatua.

Konbergentzia hori azaltzeko, dieta ezberdinak nola batzen joan diren ikus daiteke, mundu-mailako dieta handi bat osatzearren, elikagai freskoetatik eraldatutako produktueta igaroz; alegia, dieta industrializaten joan da. Gaur egun, espainiar Estatuan, **jaten dugunaren %70 elikagai prozesatuak dira.**

Hala ere, eredu dietetikoek oro har bat egiten duten arren, kontsumitzeko estilo ezberdinak sortu dira maila sozioekonomiko eta kultural ezberdinak dituzten estratu sozialen artean.

Gero eta antz handiagoa duten kontsumo-eredu alderako konbergentziarekin batera, elikagai-motaren aniztasuna itxuraz handitzen da. Hona hemen adibide bat: supermerkatu batean, jogurten sektorean igarotzen bagara, hainbat formatu, gustu, kolore, mota eta abar aurkituko ditugu. Baina, egia esan, horien konposizioa aztertzen badugu, ia beti bera da; hau da, esneki hautsaren deribatuak, dozenaka koloratzaile eta dastagarri gehituta.

Elikadura-globalizazioaren ondorio nabarmenetako bat da ekoizpen-gune berriak agertzea, nekazaritzako benetako esportazio-plataformak. Horiek kanpoko merkatuetara bideratuta egoteak, itxuraz teknifikazio handia izateak eta eskulanaren erabilera handiak lanaren eta kapitalaren mugikortasun- prozesu handien eszenatoki bihurtu dituzte horiek kokatzen diren lurraldeak.

Hemen aztertuko ditugun batzuk aipatzearren, Huelva, Murtzia, Almeria, Katalunia eta Galiziako eskualdeak dauzkagu. Elikadura globalaren benetako hub-ak dira, eta horien inguruan eraldaketa sozial, politiko eta ingurumen-arloko eraldaketa oso bizia gertatzen da. Nekazaritzako esportazio-plataforma horiek elikadura-sare globalaren barruko konexio-nodoak dira.

Estatu baten barruan mikroestatuak sortzen dituzte; hau da, nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko zona frankoak. Horien ezaugarrien artean, ondorengoak aurki ditzakegu: kontzentrazio espazial handia, elkarren arteko konexio izugarria, egitura sozial propioak eta erakunde politikotatik ikerketa-zentro espezializatueta bitarteko ingurune instituzionala.

Ekoizpen-gune horiek zenbait ezaugarri partekatzen dituzte ekonomiaren eta munduaren luze-zabaleran: esportaziora bideratutako jarduera garatzen dute, banaketa-kate handiek menderatzen dituzte, eta industrializazio-maila altua dute. Hori guztia kapitalaren kontzentrazio eta zentralizazio dinamika bizian oinarritzen da.



Prozesu horiekin hertsiki lotuta, lanaren gizarte-osaeran zenbait aldaketa gertatzen dira, ekoizle autonomo txikian oinarritutako harremanak eta haien familia-harremanak murrizten dira, eta, aldi berean, soldatapeko lanaren gainean egituratutako harremanek zentralitate itzela hartzen dute.

Nekazaritzako elikagaien lurralde horiek ekoizteko modu berriak garatzeaz gain, migrazio-zirkuitu berriak sortu dituzte; ondorioz, nekazaritza-ekonomia tradizionalak suntsitu eta migrazio-ibilbideak aldatzen dira.

Izan ere, atzerritartasun-legeen eta migratzaileak kontrolatzeko gailuen eta nekazaritza-esportazioko enpresa-sektorearen beharren arteko koordinazioa erabatekoa da.

Esportazio-nekazaritzaren mirari ekonomikoak eta milaka milioi euroko salmenten eta esportatutako milioika tona elikagaien ezohiko datuek ez dute enplegu egonkor eta kalitatezko sortu; aitzitik, enplegu-harremanen eta lan-baldintzen prekarietate handiagoa ekarri dute. Paradoxa hori soilik ulertu daiteke lehiakortasunaren enpresa-estrategiaren barruko beste elementu bat bezala, merkatu globaletan sartzeko, lan-kostuak murriztuta.





© Flickr.com

NEKAZARITZA-ESPORTAZIOKO PLATAFORMAK

Elikagaien nekazaritza-esportazioko hiru plataforma handi daude, eta horietan espainiar Estatua funtsezko aktore gisa txertatzen da elikaduraren sare globaletan: **fruta eta barazkien** sektorea, **haragiaren** sektorea eta **arrain-kontserben** eta itsasoko gainerako produktuen sektorea.

Frutak eta barazkiak

Espainiako Estatuak Europar Batasuneko fruta (ez zitrikoak) eta barazki guztien ia laurden bat ekoizten du. Halaber, Europako lehen esportatzailea da eta hirugarrena mundu-mailan. 13,4 milioi tona fruta eta barazki fresko esportatu ziren 2021ean (5,7 milioi barazki eta 7,6 milioi fruta). Batez ere Alemania, Frantzia, Erresuma Batura eta Holandara esportatzen dira.

Zitrikoei dagokienez, Valentziako Erkidegoa munduko eskualde esportatzaile nagusia da. Uztaren %60 esportatu egiten da, eta batik bat Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko supermerkatuetara.



Bestalde, Espainiako Estatua munduko bigarren herrialdea da berotegien azalerari dagokionean (lehenengotik, Txinatik, oso gertu), eta ia erdia Almeriako eskualdean, Granadako kostan eta Murtzian aurkitzen dira. Horiei gehitu behar zaizkie Huelvako marrubiak eta gainerako fruitu gorriak, Levanteko zitrikoak eta Kataluniako mendebaldeko hezurdun frutak. Andaluziak urtean 4,4 milioi tona inguru esportatzen ditu, Valentziako Erkidegoak 3,8 milioi tona, Murtziako Eskualdeak 1,3 milioi tona eta Kataluniak (Lleida ingurua) ia milioi bat tona.

Fruta eta barazkien enpresa esportatzaile nagusia Unica Group da; hots, bigarren mailako megakooperatiba, Almerian egoitza duena. 9.000 ha-tik gorako ekoizpena du, eta horietatik 3.000 baino gehiago berotegikoak dira. AN Group-en sartuta dago, Nafarroan egoitza duen bigarren mailako beste kooperatiba izugarri batean.

Melokotoiak, nektarinak eta hezurra duten gainerako frutak ekoizten eta esportatzen dituzten bi enpresa nagusiak Lleida inguruan aurkitzen dira; hau da, Nufri Taldea eta ActelGrup. Lehena inguruko familia aberatsenatariko batena da, Argiles familiarena. 5.000 ha-tik gorako azaleran fruta-arbolak ditu; baita zuku eta kontzentratuen dibisio bat eta ekoizpen energetikoko beste bat ere (eguzkia, biomasa eta hidraulikoa).

Zitrikoetako enpresa liderretako bat, berriz, Citri&Co da (edo Cítrico Global). Zitrikoz betetako 10.000 ha baino gehiago ditu (hezurdun frutaz, fruitu gorriez eta mahatsaz gain). Zitrikoetan bakarrik, urtean 500.000 tona baino gehiago ekoizten dituzte, eta paketatzeko eta tratatzeko instalazioak ditu Huelvan, Castellonen eta Valentzian.

Cítrico Global enpresa-multzo bat da, eta horien artean Martinavarro eta Rio Tinto Fruit nabarmentzen dira. Forbes aldizkariak bere azken sailkapenean sartu zuen Martinavarro familia, Espainiako aberastasun handienen artean, 300 milioi euroko ondare garbiarekin.

Horrek guztiak erakusten du ez garela Europako merkatuetan salduz bizirauten ahalegintzen ari diren familia-ustategiei buruz ari, botere ekonomiko eta politikoaren nodo garrantzitsuak diren makroenpresa-sareei buruz baizik.

Merkatu globaletan nekazaritza-produktuen lehiakortasuna bermatzeko, sektoreko enpresek, erakunde publikoen babes eta guzti, lan-kostuak beherantz jaisteko etengabeko presioa egin dute.

Hasiera batean, sasoikako langileak bertakoak izan ziren, baina hori beste sektore ekonomiko batzuetara aldatu zen. Orduan, gizarte-talde ahulenen bila hasi ziren, eta orain ere horrek horrela jarraitzen du. Migrazio-fluxuak eta haien baldintzak arautzen joan diren araudi eta legeria ezberdinak sektorea nazioartekotzeko prozesua bultzatu duten araugintza-aldamioak izan dira.



Bertako langile behartsuetatik atzerriko langile behartsuetara pasa zen, Saharaz hegoaldeko atzerritarretatik Europako Ekialdeko biztanleetara, ekialdeko biztanleetatik Marokoko biztanleetara, gizonetatik emakumeetara, poloniarretatik senegaldarretara, senegaldarretatik marokoarretara.

Mendeko eskulanaren eta gainerakoak baino eskubide gutxiago dituztenen bilaketa beti babestu du legeak. Atzerritartasun-lege ezberdinak aztertu besterik ez dago, nekazaritza-esportazioaren sektoreko enpresen beharren ikuspegitik.

Nekazaritza-esportazioan, **eskulan kaltebera eta migratzailea kontratatze**ko bi mekanismo erabili dira: jatorrian kontratatzea, marrubiaren eta Huelvako eskualdeko gainerako fruitu gorrien sektorea bezalakoetan gehiengoa dena; eta atzerriko eskulana kontratatzea, jada Estatuko mugen barruan dagoena. Eskulan horren zati bat erregularizatuta dago, beste zati bat ez.

Jatorriko kontratazioak kupoen politika du, eta 90eko hamarkadan erregulatu zen. Langile kalteberen bila joaten dira jatorriko herrialdeetara, ekarri, lan egin eta gero itzuli egiten dituzte, eta politika hori legez eratzen joan da hainbat fasetan.

Espainiako Estatuan ez dauden sasoikako langile atzerritarrak biltzeko prozedurari *jatorrian egindako kontratazioen kudeaketa kolektiboa* deitzen zaio. Prozedura horrek sasoiko jardueretarako beharrezko eskulana ematen die fruta-ustiategiei, aldi baterako bizilekuaren baimenaren bidez.

Atzerritartasunaren legeak nekazaritza-esportazioen interesekin koordinatzeaz gain, lan-merkatu ezberdina sortzen da, gainerako biztanleek baino eskubide gutxiago izanik. Ikus dezagun adibide bat.

Ia 7.000 hektareako laborantzan, Estatuan ekoizten den marrubiaren %95 Huelvan landatzen da. Marrubiaren patronalaren ustez, 100.000 lanpostu inguru behar dira kanpaina bakoitzean. Emakumeek plantillaren %80a osatzen dute urtariletik ekainera, eta, ondoren, jatorriko herrialdera itzultzen dituzte. 14.000 inguru Marokotik etortzen dira. Urtero, Marokoko emakumez betetako ferryak Algecirasen lehorreratzen dira Tangerretik bueltan. Milaka emakume erreklutatzen dituzte -zalantzagarrria baino gehiago den hautatzeko prozesu baten ondoren-, eta ustiategi ezberdinetara garraiatu eta haietan banatzen dituzte.

Kontratazioak Marokon egiten dira, Marokoko Enpleguako Agentzia Nazionalaren bidez. Emakumeak ingurune pobretuetakoak dira. Batez ere 40 urtetik beherako emakumeak kontratatzen dira, 14 urtetik beherako seme-alabak haien kargu dituztenak. Horrek ziurtatzen du eskubideen urraketa gehiago nozituko dituztela eta haien herrialdeetara itzuliko direla ustiapen-aldia amaitzen denean.



Emakumeak hiru, sei edo bederatzi hilabeteko kontratuekin etortzen dira, eta enpresariak beren finketan eraikitako etxeetan hartzen dute ostatu. Herrietatik isolatuta daudenez, lana kontrolatzeko mekanismoak eremu pribatuan geratzen dira.

Berriki, Hondurastik etorritako beste migratzaile-kupo bat Espainiako nekazaritza-esportazioaren esku jarritako biztanleria-taldeko kide izatera igaro da. Hondurasko eta Espainiako Gobernuak 2022. urtearen erdi aldera itundu zuten Hondurasko migratzaileen kontingentea handitzea nekazaritzako uztan lan egiteko. Itun hori, egia esan, makropolitika migratzaile batean sartzen da, eta horren epizentroan Estatu Batuak daude. Migrazioa handitzea Ameriken aurreko Gailurrean berretsi zen Los Angelesen, eta, bertan, Estatu Batuetako Joe Biden lehendakariak nabarmendu zuen “hegoaldeko mugako tentsioa jaitsi” beharra zegoela, Erdialdeko Amerikako migratzaileak beste herrialde batzuetara bidalita, tartean, Espainiara.

Beste mekanismoa **jada herrialdean dagoen eskulan atzerritarra kontratatzea da**. Uste da Espainiako Estatuan, 2020. urtean, 390.000 eta 470.000 etorkin artean bizi zirela modu irregularrean. Gehienak emakumeak dira. Beharrezkoa den eskulan kaltebera lortzeko enpresa-kala nagusia biztanleria-talde horren eta legezko bizileku-baimena duen atzerritar biztanleriaren artean aurkitzen da.

Atzerriko langileei egindako kontratuetatik %32 nekazaritza-sektorekoak dira. Huelvan, atzerritarren kontratuen %89 hartzen ditu; Murtzian, %82; Almerian, %62; eta Lleidan %51. Beraz, atzerriko kontratazioa gainordezkatuta dago sektore eta eskualde jakin batzuetan. Eta horrek, nekazaritza-jarduera batzuen behin-behinekotasun izaeratik haratago, zerikusi handia du eskaintzen diren baldintzekin eta horiek onartzeko prest daudenekin.

Jada ikusi dugun moduan, **ABLEak funtsezko eragileak dira nekazaritza-esportazioak eskulan kaltebera kontratatzea ulertzeko**. Murtzian, landako kontratuen %80 ABLEen bidez egiten dira. Antzeko fenomenoak gertatzen da, baita ere, Almeriako plastikozko itsasoan edo Lleida inguruan.

Gehiegizko egoerak salatzeko milaka salaketa aurkeztu dira ABLEen aurka, soldata-iruzurreragatik, Gizarte Segurantzarekiko kotizazio-iruzurrerengatik edo legez kontrako lan-baldintzak aplikatzeagatik.

Lan-harremanen kudeaketa-eredua sasoikako langilearen eta enpresariaren artean zuzeneko kontratuaren bidez egiten denaren oso bestelakoa da. ABLEak tartean dauden kontratazioetan, horiek ordaintzen dituzte soldatak eta horiek formalizatzen dituzte altak edo bajak Gizarte Segurantzari.



ABLE sarean harrapatutako sasoikako langileen kopurua biderkatu egin da, enpresarientzat askoz ere erosoagoa baita horien bitartez kontratatzea eta denaz ez arduratzea. Ondorioz, soldatak baxuagoak dira, eta lan-eskubide gutxiago dituzte.

Lan-kontratazioan ABLEek duten paper nagusiak lan-baldintzak beherantz bultzatzen ditu, eta horren ondorioak negargarriak dira. Erantzukizunak desagertzeak eta kontratuak eta lan-harremanak izateko moduak erabat zailtzeak lan-eskubideak gero eta gehiago urratzeko bideak irekitzen ditu.

Nazioarteko hainbat misio eta giza eskubideen aldeko hainbat elkarte barazki eta fruta-ustategietara eta sasoikako langileak bizi diren lekuetara joan dira egoera ezagutzera. Bisita horietako bat Huelvara egin zuen Nazio Batuetako Philip Alstonek, pobrezia larriari eta giza eskubideei buruzko kontalari bereziak, eta aitortu zuen han ikusitako bizi-baldintzak “munduko edozein lekutan berak ikusitako okerrenekin lehiatzen direla”.

Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioak Huelvako marrubi-landaketetako lan-baldintzen inguruan egindako txostenaren arabera, “langileen eskubideen gainera gehiegikeriak orokorrak dira ustategietan”. Txostenean zehaztutako alderdi nabarmenetariko batzuk dira bermatutako gutxieneko soldatarik eza, ordaintzen ez diren aparteko orduak edo Gizarte Segurantzarekiko iruzurra.

Baina gehiago ere bada. **Barazkien eta frutaren sektoreak Europako merkatuetan lortu duen posizio pribilegiatuari eustea ez da erraza.** Elikagai-sare globalak aurkako lurraldeak dira, eta alderdi ekonomikoak alderdi geopolitiko eta krisi orokorrekin nahasten dira.

Espainiako Estatuak duen nagusitasunezko posizioa bi frontek izugarri mehatxatzen dute. Alde batetik, Marokok gero eta botere handiagoa du plastikozko itsasoko produktuen hornitzaile gisa, Egipto edo Hegoafrika indar handiarekin datoz zitrikoen hornitzaile gisa edota Europako ekialdeko ekoizleak gero eta gehiago dira kontinenteko merkatu zentraletan. Beste aldetik, berriz, Europar Batasuneko iparraldeko herrialdeetako negutegietako ekoizpenak nabarmen hazten ari dira, bereziki Herbeheretakoak edo Belgikakoak. Horretan izugarri laguntzen du klima-aldaketak. Herbeheretan, batez besteko tenperatura bi gradu igo da; horrez gain, azken generazioko instalazio berriak sortu dira, eta, ondorioz, metro karratuko 40 kilo tomate baino gehiago ekoiztea lortzen ari dira, Espainiako batez besteko 15 kiloren aurrean. Gainera, helmugarako garraio-kostua Espainiatik egindakoa baino nabarmen txikiagoa denez, arrisku larria dago Espainiako mirariarentzat.

Era horretan, **sistema global horien hauskortasunak kostuak etengabe doitu beharra eskatzen du, nazioarteko merkatu-kuotari euste aldera.** Eta nola merkatu daitezke kostuak? Energia izugarri igo da. Hazien edo pestiziden eta ongarri sintetikoaren kostuan ia



ezin da eragin, eta ez dago asko egiterik, ezta ere, berotegien edo plastikoaren kostuarekin. **Kostuak murriztu behar badira, benetan jardun ahal izateko faktore bakarra dago: eskulana, garrantzi handikoa, gainera.**

Erreparatu diezaiegun zitrikoei. Ekoizpen, bilketa eta prozesatze faseetako eskulana batzen badugu, kostuen ia %40 eskulana da. Almeriako eskualdean, 2020ko fruta eta barazkien kanpainako produkzioaren kostuak kontuan hartuta, eskulanaren kostua %45 izan zen, ez gehiago ez gutxiago.

Aukera argia da; hots, lanordu bakoitzeko ahalik eta gutxien ordaintzea, baina, batez ere, ekoiztutako produktu-kilogramo bakoitzeko ahalik eta gutxien ordaintzea. Horrela azaltzen da ikusi dugun lan-esplotazioko armategia. Ez dira soldata txikiak bakarrik, baizik eta destajuz ordaindutako soldatak (ekoizpenaren arabera), hitzartutakoak baino ordu gehiago lan egitea, aparteko orduak ez ordaintzea, Gizarte Segurantzaz egun gutxiago deklaratzeko, ostatu egoki bat ez ematea edo ABLEek nekazaritza-esportazioko eskualde askotan duten erabateko zeregin nagusia.

Azkenik, laburpen honetan ikusten joan garen eta txostenean zehatz-mehatz aztertu dugun zerbait azpimarratu behar da: **etniaren eta generoaren arabeko segmentazioa**. Ordezkapen etnikoa –inmigratio-politikek, erregularizazioak, kupoei eta jatorriko kontratuek erraztua– biztanleria-talde kalteberen bilaketan sartzen da, prekarietatea onartzeko prest baitaude. Generoari dagokionean, enpresariak argudiatzen dute emakumeak ez direla hain gatazka suak, langileak direla eta baita hobeak ere landa-lanerako, arrazoi fisikoengatik. Azken finean, gizarte- eta lan-gatazka murrizteko estrategiaren zati gisa hautatzen dituzte.





Txerri inperiala

Haragi-ekoizpenaren gaindimentsioa eztaba daezina da espainiar Estatuan. Ez gara familia-granja gutxi batzuetan oinarritutako sektore ekonomiko txiki batez ari, haragiaren fabrikazio masiboko sistema integratu batez baizik, eta hori eragile korporatibo globalen esku dagoenez, kontsumoak, imajinarioa eta politika publikoak baldintzatzen dituzte.

Beste azterketa batzuetan aztertu ditugu Espainiako haragi-multzoak ingurumenean, kliman eta giza osasunean dituen ondorioak eta horien garrantzia. Baina sektorean ere bada zorupea, eta bertan lan-prekarietateak makineria koipeztatu eta funtzionarazten du.

Granja industrialak eta haietan lan egiten duen eskulan migratzailea azter genezake, baina katearen beste alderdi batean oinarrituko gara: hiltegiak, animaliak sartu eta haragi-produktuak ateratzen diren lekua. Haragi guztien artean, txerriari erreparatuko diogu, errege eztaba daezina baita ekoizpen- eta esportazio-kopuruaren aldetik. Eta zona guztien artean, Katalunian jarriko dugu arreta, arrazoi bera dela-eta.

Espainiako Estatua lehena da Europar Batasunean, hildako txerriei dagokienean. Gure hiltegietatik 56 milioi txerri baino gehiago igarotzen eta hiltzen dira urtero, EBn hildako lau txerritatik bat. Haragi-ekoizle nagusiak Katalunia eta Aragoi dira, Estatuko haragi guztiaren %41 eta %18 ekoizten baitute, hurrenez hurren.

Kataluniak 2 milioi tona txerri-haragi ekoizten ditu urtean. Duela 20 urte, 950.000 tona ekoizten zituen, erdia baino gutxiago. Izan ere, txerri-haragiaren kate globalen operazio-

guneetako bat Katalunia da, eta horrek ekoizpen- eta esportazio-plataforma izugarri bilakatzen du: txerri-fabrikazioko industrialde bat. Beharrezko osagaien zati bat inportatu egiten du (pentsuak, gehigarriak, animaliak, farmakologia, e.a.), muntatu egiten ditu – gizartean eta ingurumenean inpaktu larriak eraginez – eta, azkenik, azken produktua (txerri-haragia) nazioarteko merkatuetara esportatzen du.

2020an, Kataluniak 20 kg-ko 2,16 milioi txerriren baliokidea inportatu zuen; hau da, Estatuak inportatutako osoaren %40. Eta nondik zetozen? Frantziatik eta Herbeheretatik. 2016an, 20 kg-ko 400.000 animalia baliokidea inportatu zen. Era horretan, soilik lau urtetan, inportatutako txerri-kopurua bost aldiz biderkatu da.

Ekoizpen horren helburu nagusia esportazioa da. Zehazki, %79. Estatuak esportatutako haragiaren %51,53 esportatzen du Kataluniak eta EBk esportatzen duenaren %22,56.

Haragi-plataforma global horren funtsezko aktorea hiltegiak dira. Kate-maila horren kontzentrazio korporatiboa oso handia da. Adibidez, Kataluniako hiru hiltegi nagusitan, Kataluniako animalia-kopuru osoaren %60 baino gehiago hiltzen dira, eta Europako lehen 15en artean daude.

Europako hiltegirik handiena Espainiako Estatuandago, Literako eskualdean, Binefar herrian (Aragoi). 130.000 metro karratu ditu, egunean 32.000 txerri hiltzen ditu, 23 zatiketa-lerro ditu, hozteko 40 tunel, 2.500 tona haragi izozten ditu egunero, eta bost kontinenteetako 50 herrialde baino gehiagotara esportatzen du. 1.600 lagunek egiten dute lan bertan.

Zaila da jakitea Espainiako Estatuko hiltegiengan zenbat lagunek egiten duten lan. Neurri batean, lan-esplotazioa ziurtatzeko eta, aldi berean, une bakoitzean dagoen legeria betetzeko sortutako lan-ingeniaritzarengatik da. Esate baterako, denbora luzez, hiltegi handiek kontratatzeke nahiago zuten moduetako bat autonomo faltsuak edo kooperatiba faltsuak ziren. Katalunian soilik, 2018. urtean, animaliak hiltzeko sektorean 9.548 pertsona zeuden afiliatuta langile autonomoen erregimenean.

Beranduago, lan-eskubiderik gabeko eskulan merkea lortzeko modu berri bat aurkitu zuten enpresek: sektoreko hitzarmena betetzen ez zuten zerbitzu anitzeko enpresen bitartez azpikontratatzen zituzten langile guztiak. Kalkuluen arabera, Espainiako Estatuan 15.000 eta 20.000 langile artean egongo ziren hiltegiengan lan egiten konpainia horien bitartez azpikontratututa. Zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da, eta sindikatuak ere ez dira gai milaka langileri (gehienak migratzaileak) eragiten dien fenomeno hori dimentsionatzeko. Zifra bat aurkitzen ahalegintzeko beste modu bat da Gizarte Segurantzaren zenbat pertsona afiliatuta dauden ikustea sektore horretan. 2010. urtean, 30.000 inguru ziren.



Lan-baldintzei dagokienez, hiltegiak lan egiteko lekuri okerrenetarikoak dira herrialdean. Lan Ikuskaritzak 2019an egindako txosten baten arabera, sektoreko enpresa liderretako batek (Jorge Taldea, Le Porc Gourmet izeneko filial baten bidez), “langileen duintasunaren eta haien oinarritzko lan-eskubideen eta Gizarte Segurantzaren aurka eraso zuen”. Izan ere, fruta eta barazkien kasuan ikusi dugun bezalaxe, lan-prekarietatea faktore giltzarria da elikagaien plataforma esportatzaileen ustezko arrakasta ulertzeko.

Hiltegietako langileen borrokak eta protestak 2017an hasi ziren, eta puntu gorenetariko bat 2019an izan zuten, Lan Ikuskaritzak Estatuko haragi-planetan zehar zehaztu baitzuen hiltegietako langileak autonomoak ez, beste guztia zirela. Autonomo faltsuaren irudia sektorean gehien zabalduta zegoen irudietako bat zen. 2017an, CCOOren datuen arabera, haragi-industrian 21.000 autonomo faltsu enplegatuta zeuden herrialdean. Langileak eskubiderik gabe zituzten enpresen artean, honako hauek aipa ditzakegu: Argal, UVESA, Covap, Disavasa, Coren, SADA, Vall Companys, Guissona, Jorge Taldea edo Campofrío.

Jada 2019an, 8 milioi eurotik gorako isuna jarri zitzairen hainbat hiltegiari, Gizarte Segurantzari ordaindu gabeko kuoten izenean. Halaber, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren epai nahiko berria aipa dezakegu, 5.620.291 euroko isuna berretsi baitzien Servicarne kooperatiba faltsuari eta SADA haragi-enpresari (Estatuko oilasko-ekoizle nagusia), langileak afiliatuta ez izateagatik.

Servicarneren kasua interesgarria da, sektoreak nola funtzionatzen duen erakusten baitu. Itxura batean, kooperatiba bat zen, baina, benetan, hiltegiei eta haragi-sektoreko beste enpresa batzuei autonomo faltsuak (kooperatibako bazkideak) ematen zizkien enpresa-pantaila, langileei beren eskubideak kenduaz eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak saihestuaz. Modu horretan, “kooperatibako” enpresa “bezeroek” merkatuko kostukoa baino askoz ere kostu merkeagoko eskulana eskura zezaketen. Enpresa hori izugarria izatera iritsi zen, eta berrogeita hamar bat enpresari (tartean, Campofrío) kooperatibistak (sindikatuaren arabera, autonomo faltsuak) emateko gai izan zen.

Lan-baldintzak hobetzeko borroka-prozesu horretan, 2017an Kataluniako Generalitatek Kooperatiben Legearen aldaketa bat onartu zuen, autonomo faltsuen fenomenoarekin amaitze aldera. Itxuraz, beste albiste on bat izan da haragi-sektorerako hitzarmen kolektiboa onartzea, 2021. urtearen amaiera aldera sinatua.

Horrek zer esan nahi du, lan-baldintzak orain lehen baino hobeak direla? Kasu batzuetan, apur bat bai, baina gehienetan ez. Beste behin, elikadura globalaren estrategia klasikoetako bat sartu da jokoan, lan-arloko legeria nolabait saihesteko; hau da, ABLEetara jotzea. **Behin kooperatiba faltsuek erabilitako autonomo faltsuen iruzurrarekin aurrera jarraitzeko dagoen zailtasuna egiaztatuta, aldi baterako laneko enpresen komodina aukeratu zuten.**



Beraz, nahiz eta eguneroko lana haragi-lantegietan egin eta hiltzeko eta prozesatzeko jardueretan enplegatuta egon, langile horiek ez dituzte haragi-sektoreari buruzko hitzarmen kolektibo nazionalak zein tokikoek babesten. Era horretan, aldeak handiak dira, soldadari, lanaldiari eta Gizarte Segurantzaren estaldurari dagokienean, azpikontratatistek kontratatutako pertsonen eta haragi-enpresek zuzenean enplegatutako pertsonen artean.

Txostenean jasotako ikerketak nahiz sektoreko langileei egindako elkarrizketen emaitzak bat datoz; alegia, hainbat hiltegitan paperik gabe lanean ari den jendea badagoela eta haragi-industrian, oro har, eta hiltegietan, bereziki, migratzaileen ehunekoa handia dela, batzuk egoera administratibo irregularrean, gainera. Sektoreko enpresa jakin batzuek lan-mendekotasun berme horretaz baliatzen dira langileak lan-baldintza oso txarretan jartzeko.

Lighthouse Reports enpresak Estatuko hiltegi-tako lan-baldintzen inguruan egindako txostenean azaltzen denaren arabera, paperik gabeko pertsonen egoera erregularrean dauden migratzaileei paperak alokatuta lortzen dute lana, eta hori rider-en eta etxetzeko janari-banaketa-aren kasuan ere gertatzen den zerbait dela ikusiko dugu. Kontua da enpresak paperik gabeko jendez beteta daudela, eta langileak ezin direla kexatu, egoera irregularrean daudelako.

Horrez gain, **laneko arriskuak** daude. Hiltegietan lan egiten duten pertsonak beren lanaldian zehar geratu ere egin gabe eta behin eta berriz errepikatzen duten zeregin bakar batean espezializatuta daude, eta haien lan-erritmoak frenetikoak dira. Hezurra kentzea edo haragia prestatzea bezalako lanek indar handiko mugimenduak eskatzen dituzte, eta berehala higitzen dute mugimendu horiek egiten dituen; ondorioz, osasun-arazoak edo ezintasun iraunkorreko arazoak sortzen dira. Lan-baldintzak direla-eta, lesioak izaten dituzte: ordu asko, geratu gabe, erritmo oso bizian eta mugimendu oso errepikakorak. Halaber, istripuak gertatzen dira, ebaki sakonetatik hasi eta gorputz-adarrak galtzeraino, ekoizpen-kateko lan-erritmoa medio.





Ontziratzen ere prekarietatea

Arrainaren eta itsaskiaren Espainiako eraldaketa-industria ere munduko garrantzitsuenetariko bat da, urtean 825.000 tona produktu fabrikatzen baititu. Bolumen horretatik zati handiena kontserbei dagokie, eta hor errege absolutua atun-latak dira (kontserbak eta prestatu guztien %70); ondoren, tartearekin, muskuiluak, sardinak, zaldiak eta antxoak daude.

Korporazio handien talde batek negozio-bolumenaren %75 eta enplegu osoaren %70 kontrolatzen du (20.000 bat pertsona). Ekoizpenaren %70, gutxi gorabehera, mundu osora esportatzen da, baina helmuga nagusiak hauek dira: Frantzia, Italia, Portugal, Herbehereak eta Alemania (EBn) eta Erresuma Batua, Estatu Batuak, Maroko eta Turkia (EBtik kanpo).

Atun-kontserbak dira munduan gehien kontsumitzen diren arrantza-produktuak; hau da, atun-harrapaketen %75 kontserbatara bideratzen da.

Atunaren merkatuak, gainerako merkantzia globalen antzera, egitura oligopolikoa du. Munduko konpainia garrantzitsuenak herrialde ekoizle nagusien artean banatuta daude, eta kontzentrazio-maila handia dute.

Atun-kontserbei dagokienez, Espainiako Estatua munduko funtsezko eragilea da. Kontserbetarako atunak erauzten eta eraldatzen Europako lehen herrialdea da, kopuru osoaren %64ra iristen da, eta 374.000 tona lortzen ditu urtean; munduko bigarrena, berriz, Tailandiaren ondoren.

Espainiako enpresa nagusiak Jealsa, Frinsa del Noroeste, Calvo eta Garavilla dira.

Rianxeira, Escurís, MareAperto edo Robinson Crusoe bezalako marken jabea da Jealsa, eta supermerkatuetarako marka zuriak ere fabrikatzen ditu Espainian nahiz nazioartean (tartean, Mercadona). Estatuko atun kontserben salmenten erabateko liderra da.

Frinsa bigarren lekuan dago, eta Frinsa, Ribeira, Seaside eta The Nice Fisherman bezalako markak ez ezik, marka zuriak ere baditu; tartean, Carrefour, Alcampo edo El Corte Inglés.

Calvo aurkeztu beharrik ez dago. Eta Garavilla Taldeak Isabel edo Cuca bezalako markak egiten ditu; duela urte batzuetatik hona Italiako Bolton multinazionalarena da. Estatuko eta Europako zitrikoak esportatzen dituen enpresa nagusiaren parte ere bada: Cítrico Global.

Esportazioa kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu Tailandia, Ekuador, Filipinak eta Espainia direla atun prozesatuaren eta kontserbako atunaren lau hornitzaile nagusiak munduko merkatuan (2019ko datuak), eta, ondoren, Txina eta Indonesia aurkitzen dira.

Estatuko atun-kontserben esportaziorako helmuga nagusia EB da, zehazki eta ordena honetan: Italia, Frantzia eta Portugal.

Kontserba-enpresetako lan-baldintzei dagokienean, sektorean 30.000 pertsona baino gehiagok egiten dute lan, eta horien erdiak, gutxi gorabehera, Galizian egiten du. Gehienak emakumeak dira (%8,2), eta batez beste 45 urte dituzte.

Emakumeak beti protagonista izan dira sektorean hasiera-hasieratik, baina, gizonak baino soldata txikiagoa izan dute beti. Horrela izan da, eta horrela izaten jarraitzen du, XII. mendetik gatzetan jartzeko lanekin hasi, XX. mendeko kontserbatik igaro eta gaur arte, 2017an sinatutako azken hitzarmen erregulatzailearekin.

Urtarokotasuna eta behin-behinekotasuna arrain-industriaren sektorearen bi ezaugarriak dira. Izan ere, enpleguaren urtarokotasun-tasa elikagaien industriak oro har duenaren ia bikoitza da.

Genero-sesgoa oso bistakoa da kontserba-enpresetan. Kontratuen behin-behinekotasuna aztertu eta gizona/emakumea aldagaiarekin gurutzatzean, aldi baterako kontratuen %71,74 eta aldizkako kontratu finkoen %82,38 emakumeen gain daudela ikus dezakegu. Aldiz, gizonak sektorean %40 inguru izan arren, %76,23ak lanaldi osoko kontratu finkoa du, %6,67ak aldizkako kontratu finkoa eta %14,32ak aldi baterako kontratua.

Langilearen kualifikazioa baino beheragoko kategorietako kontratazioari erreparatuta, arrain-industriako emakumeen azpienplegu tasa %32,7koa da, sektorearen bateaz bestekoa (gizonak sartuta) %28,8koa den bitartean.



Soldataren aldetik, genero-arrakala handia da, balio berdineko lanen arabera. Gizonen eta emakumeen ordainsarien arteko aldea %29,7koa da.

Alegia, emakumeek aldi baterako kontratu gehiago dituzte, duten kualifikazioa baino maila baxuagoan gehiago kontratatuta daude, eta soldata txikiagoa dute. Lan-prekarietate handiena emakumeek jasaten dute, eta hori, neurri handi batean, lan-antolamendu ezberdinarengatik gertatzen da, gizonak lan-kategoria hobeetan kokatzeagatik.

Negoiazio kolektiboak berak egoera hori bultzatzen du. Arrainaren industriako hitzarmen kolektiboak emakumeek burututako lana gutxiestea legeztatzen ari dira, sailkapen profesionalaren sistemaren bidez. Gizonei ematen zaizkie ordainsari handiagoko kategoria profesionalak. Baina, postu horietako gehienak emakumeek egiten dituzten lanen baliokideak edo balio berdinekoak dira.

Adierazgarria da ikustea arrain-kontserben Estatuko hitzarmenean, “laguntzailea” kategoria profesionalean –hainbat ogibideren taldeko baxuenetarikoa–, ia langile gehienak gizonezkoak direla eta “maisua” kategoria profesionalekoa baino soldata handiagoa dutela; azken kategoria hori ekoizpen-taldeko handiena da (fabrikazioko langileak), eta bertan langile ia guztiak emakumezkoak dira.

Modu horretan, fabrikazioko maistra baten oinarritzko soldata hainbat ogibidetako maisu baten soldata baino %13 txikiagoa da, mendeko langileen biltegizain batena baino %22,5 txikiagoa edo ordenantza, atezain edo zaintzaile batena baino %9 txikiagoa. Eta hori genero-mailako soldata-arrakala zabaldu ohi den zati nagusian sartu gabe: osagarriak eta plusak.

Doktrina juridikoan esaten da diskriminazio-ezaren arauak eskatzen duela lana baloratzeko irizpideak berez diskriminatzailerik ez izatea. Baina badirudi hain justu hori egiten ari direla; izan ere, enpresak sexu bateko langileak kontratatzen ditu gehienbat kategoria jakin baterako eta beste sexuko langileak beste kategoria baterako, lanaren edukia funtsean bera izanda.

Gainera, arrain eta itsaskien kontserben, erdikontserben eta gazitu en sektoreko hitzarmen kolektiboak estatu-mailako hitzarmenik okerrenetakoa da, lanaldi eta soldataren aldetik baldintza okerrenak baititu.

2021 eta 2022 urteetan zehar, borrokak, protestak eta grebak egin zituzten sektoreko langileek, lan-baldintzak hobetzea eta generoaren arabera soldata-arrakalarekin amaitzea lortzen saiatzeko. Ondorioz, 2022. urtearen hasiera aldera, Arrain eta Itsaskien Kontserba, Erdikontserba eta Gazituen Sektoreko Hitzarmen Kolektibo berria onartu zuten patronalak eta zenbait sindikatuk 2021-2024 denboraldirako. Hala ere, sindikatuen



eta langileen mugimenduaren zati handi batek akordio hori guztiz gutxiegitzat jo zuen, 5. taldeko soldata (talde horretan gehienak emakumeak) ez baita 6. taldekoarekin (gehienak gizonak) parekatzen; gainera, kontratazio berriei asteburu eta jaiegunetan nahitaez lan egitea eskatzen zaie. Beraz, puntu horrek berriz ere emakumeak zigortzen ditu, lana eta familia bateratzea eragozten duelako, eta horrek ere batik bat emakumeei eragiten die.

Hiltegietan ikusi dugun moduan, **kontserba-lantegi bateko linealetan egiten den lana oso gogorra da**. Behin eta berriz errepikatzen diren mugimenduek artikulazioei eragiten diete lesio ugari eragitearekin batera; posizio finkoek, berriz, bizkarreko mina sortzen dute.

Langileen lekukotzen arabera, maiz izaten dituzte depresioak eta arazo emozionalak, jasotzen duten tratuarengatik eta erabat zainduta egoteagatik, bururik ez altxatzea edota ez hitz egitea eta komunera joaten behar duten denbora ere kontrolatzen baitiete.

Nekazaritzako esportazioaren gainerako elikadura-plataformen antzera, soldata baxuak eta lan-baldintza gogorrak izatearen atzean, merkatu globaletan lehiakorrak izaten jarraitzeko kostuak ezinbestean egokitu beharra aurkitzen da. Bost kostu handi daude atuna kontserban fabrikatzeko: lehengaia (atuna), produktu metalikoak (latak fabrikatzeko), olioak eta koipeak, garraioa eta eskulana. Lehen lau faktoreetan prezioak igotzen dira, eta ez dago horien kostuetan eragiteko maniobra-gaitasunik. Hortaz, zein da lehiakorrak izaten jarraitzeko ekoizpen-kostuak doitzeko faktorea? Beste behin, eskulana.





© Freepik.com

FOOD DELIVERY-A

Rider-ak

Janariarekin genuen harremana izugarri aldatzen ari da. *Foodtech* delakoaren industria (janaria eta teknologiaren arteko konbinazioa) elikadura-sektorea iraultzen ari da. Zatiarik bistakoenetarikoa etxean entregatzea da, *delivery-a*.

Azken urteetan, gero eta gehiago dira **janaria etxez etxe banatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten plataforma digitalak** eta, horretarako, mezulariak edo rider-ak izeneko pertsonez baliatzen dira. Sektorearen beraren arabera, 30 000 banatzaile biltzen ditu, baina zenbaki hori hurbilketa bat baino ez da. Ikusiko dugun moduan, ezin da jakin zenbat pertsona dauden *delivery-aren* azpimunduan.

2019an, pandemiaren aurretik, aplikazio horien bidez 36,2 milioi eskari izapidetu ziren, plataformek jatetxe eta saltokiekin egindako 64.500 lankidetzak-akordio baino gehiagori esker. Plataformetan 4,7 milioi bezero-profil inguru zeuden erregistratuta.



2022ko datuen arabera, etxez etxeko janariaren 400 milioi eskari baino gehiago egiten dira, kanal ezberdinen bidez (telefonoa eta online), eta 2.600 milioi euro fakturatzen dira. Hemen, plataforma digitaletan oinarrituko gara.

Plataformek komisioa kobratzen diote jatetxeari edo janariaren salmenta-puntuari eta prezio bat erabiltzaileari, bere eskaria jasotzeagatik. Hori nahikoa al da halako hazkunde azkarra azaltzeko? Ez. Enpresa-mota horiek klasikoen logika oso ezberdina erabiltzen dute. Lehendabiziko gauza da hazteko inbertitzea eta merkatuarekin geratzea, diru asko galtzen badute ere, gero ikusiko dute-eta nola irabazi. Hori **arrisku-kapitaleko funtsei**, esker egiten da, dirua sartzan baitiete etorkizunean errentagarritasun handia emateko itxaropenarekin. Arrisku handiko negozioak dira, eta ez dira emaitzak lantzen, emaitzen itxaropenak baizik.

Gainera, beste negozio-eredu batzuetan parte hartzen dute; esate baterako, supermerkatuekin akordioak sinatuz erosketa etxera eramateko, *dark store-etan* inbertituz, sukalde mamuen negozioa esploratuz edo beste sektore batzuetako enprekin akordioak sinatuz, etxez etxe janaria ez ezik, beste zerbait ere banatzeko.

Sektorearen balio-kateko funtsezko piezetako bat banatzaileak dira. Historikoki, autonomo bezala lan egin dute. Baina, hiltegien kasuan ikusi dugun moduan, **autonomo faltsuak** dira, hots, lan-iruzurra da: enpresa batek langile bat autonomoen erregimenean alta ematera behartzen du, besteren konturako langile gisa kontratatu beharrean.

Kamuflatutako lan-harreman horrek abantaila asko ditu enpresarentzat eta eragozpenak langilearentzat. Funtsean, besteren kontura kontratatutako langile batek dituen betebeharrak guztiak ditu, baina eskubide bakar bat ere ez. Eskaera batetik besterako denbora ez da ordaintzen. Ez dute ordaindutako oporrak izateko eskubiderik, ezta lan-baimenik edota aparteko ordainsaririk izateko eskubiderik ere, eta ez ditu hitzarmen kolektiboak babesten. Horrez gain, iruzur handia egiten zaie Ogasunari eta Gizarte Segurantzari, ez baitira zergak behar bezala ordaintzen edota kotizatzen.

UGTk 2019an egindako azterketa baten arabera, ezohiko kontratazio-moduen bidez, banaketak egiteko plataforma digitalek urtean 92 milioi euro bitarte aurreztu ditzakete soldatei dagokienean eta 76 milioi euro bitarte Gizarte Segurantzako kotizazioetan. Sektorea hazten doan heinean, kopuru horiek ere handitu egiten dira logikoa denez.

Garrantzitsua da jakitea, juridikoki, ez duela axola paperek edo sinatutako kontratuek zer esaten duten, benetan zer den baizik. Autonomo gisa alta emanda egon daiteke, autonomo gisa kuotak ordaindu daitezke eta autonomo gisa merkataritza-kontratu bat sinatu daiteke, baina praktikan besteren kontura aritzeko langilea izateko baldintzak betetzen badira, besteren konturako langilea da eta ez autonomoa.



Eta horrela aitortu da. Kolektiboak egindako borrokari esker, plataformen eta sindikatuen arteko auzi luze baten ondorioz, **2020ko irailean, rider-ak autonomo faltsuak zirela zihoen epaia eman zuen Auzitegi Gorenak**. paian, Gorenak berretsi du rider-ek ez dutela beren jarduera antolatzen edota prezioak edo baldintzak negoziatzen saltokiekin, edota ez dutela bezeroengandik ordainsaririk jasotzen. Izan ere, plataformak jasotzen du bezeroen zenbatekoa, plataformak egiten ditu fakturak eta plataformak ordaintzen die aldian-aldian banatzaileei.

Epai horrek bultzatuta, Gobernuak rider legea deiturikoa atera zuen, eta 2021eko irailean indarrean sartu zen. Bi puntu nagusiak hauek ziren: batetik autonomo faltsuen formatuaren ilegaltasuna ezartzea eta, bestetik, lan-baldintzak, soldatak, ordutegiak, e.a. zehazten dituzten algoritmoak gardenak izatea. Handik urtebetera, zenbait gauza aldatu dira. Zati handi batek bere horretan jarraitu du, eta aldatu direnak ez dira beti hoberako aldatu.

Enpresa bakoitzak estrategia ezberdina aukeratu du. Lehena, autonomo faltsuak erabiltzen jarraitzea da; hain zuzen ere, Glovok bide hori hautatu du. Eta Espainiako Estatuan liderra den enpresaz ari gara, %50 inguruko merkatu-kuota baitu. Glovok erabaki zuen plantillako ehuneko txiki bati langile bezala alta ematea eta gainerakoei dagokienez, 8.000 lagun baino gehiago, aurreko ereduarekin jarraitzea. Sindikatuek Lan Ikuskaritzari egindako salaketaren aurrean, esan behar da Glovok bi makrokausari aurre egin behar diela, autonomo faltsuak erabiltzen jarraitzeagatik. 50 milioi eurora bitarteko isunak jaso ditzake konpainiak, baina, oraingoz, plataformak berearekin jarraitzen du. Kausek eta salaketek bidea motel-motel egiten duten bitartean, Glovok merkatuan nagusitasun-lekua hartzea lortu du.

Bigarren estrategia izan da aldi baterako laneko enpresei rider flotak azpikontratatzeta. Uber Eats eta Just Eat enpresek eredu hori hautatu dute. Azken horrek 2.000 banatzaile kontratatu dituen arren, azpikontratu-enpresekin ere lanean jarraitzen du. Sindikatuek eta plataforma horietako langileen defentsarako elkarteek hainbat salaketa aurkeztu dituzte Lan Ikuskaritzan, langileak kontratatu gabe jarraitzeko aukera ematen dien maniobratzat jotzeagatik, ABLEak lan-pantaila bihurtuz; hots, lan-eskubideen benetako iragazki.

Algoritmoei dagokienean, legearen arabera, enpresek langileen ordezkariak jakinarazi behar die “algoritmoak edo adimen artifizialeko sistemak zein parametrotan, arautan edo jarraibidetan oinarritzen diren, “lan-baldintzetan eragina izan dezaketen erabakiak hartzerakoan” edo “enplegua eskuratu edo mantentzerakoan” eragina badute. Baina hemen ere, enpresek jarraitutako estrategiek –autonomo faltsuekin jarraitzea eta ABLE bidez azpikontratatzeta– sindikatuen ordezkaritzak ezarritako betebeharrak betetzetik ihes egiteko balio dute.



Zergatik uko egiten diote enpresa horiek (legea eta epai judizialak ez betetzeraino mundu guztiaren aurrean) langileak kontratatzeari eta horrek berekin dituen eskubide guztiak beren gain hartzeari? Bada, lan-prekarietatea beharrezko baldintza delako ereduak funtziona dezan.

Eta horrek **lan-baldintzetara** garamatza. Zer dago bizikletan dabilen gaztearen, janaria etxera irribarre batekin ekartzen dizunaren, askatasuna zabaltzen duenaren eta autonomoak eta ekintzaileak direnen edo diru estra eta modu erraz batean lortzen dutenen ameskeriaren atzean? Ikus dezagun.

Janaria etxez etxe banatzeko ereduak erronka egiten dio lanaren eta lan-eskubideen kontzeptuari, ustiapenaren mugak dinamitatzen baititu.

Demagun norbaitek alta ematen duela autonomoen erregimenean eta Glovoren aplikazioan banatzaile gisa. Lehen egunetan, algoritmoak lehenengoan artean bilatuko du eskaera-kopuru garrantzitsu bat egin dezan. Baina berehala hasiko da presioa sartzen, eguneroko lana puntuatuko du eta eskari handiko orduetan lan egiteko prest dagoen ikusiko du; hau da, ostiral, larunbat eta igande gauetan, jai-egunetan, euria edo hotza egiten duen egunetan edo bero izugarria egiten duen egunetan. Ebaluazio on bat lortzeko, beti prest egon behar da egun horietan. Bestela, zigortu egingo du plataformarekiko duen konpromiso eskasa. Ekoizpen gutxiko orduetan lan egiteko borondaterik ez baduzu eta eskari handiko orduetan ez bazaude, algoritmoak zure balorazioa murriztuko du, eta eskarien zirkuitutik kanpo geratuko zara. “Nik gauean alarmak jartzen nituen lankideren batek orduak edo txandak libre utzi zituen ikusteko eta, horrela, nik haren txanda hartzeko”, elkarriketa egindako *rider* batek esandakoa.

“Orduak harrapatzea” banatzailearen figuran sartzen da. Izan ere, “orduak askatzeko” eta “harrapatzeko” aukera dago. Lehen kontzeptuak esan nahi du, edozein arrazoi dela-ere, lan egin ezin diren edo lan egin nahi ez diren orduak libre uztea. Bigarrenak, berriz, aplikazioak ordu batzuk esleitzen dituela aurretik eskaria egin bada, jardueraren premiaren arabera. Sistema uneoro nahiko langile izateko moduan diseinatuta dago, eta horrek izugarrizko lehia sortzen du. Plataformak pertsona-kopuru bat kalkulatzeko du ordu-tarte eta lan-eremu bakoitzerako, baina askotan kalkulu hori ez da betetzen, jende guztiarentzat eskaerarik ez baitago.

Behin aplikazioan sartuta, zure ebaluazioaren arabera, ordutegia irekiko zaizu. Zenbat eta balorazio hobea izan, orduan eta lehenago irekiko da zure agenda. Behin irekita, libre dauden orduak hautatzen dira. Ondoren, hautatutako orduak baieztatzen edo aldatzen ditu plataformak. Adibidez, Madril erdigunerako, astelehen bateko 12:00etatik 13:00era,



soilik bi pertsona banatzen aritu behar dutela ikusten badu, soilik lan egiteko aukera izango dute ordu hori gainerakoek baino lehenago hautatu dutenak.

Plataformek eskatzen dute ezarritako banaketa-eremuan sartzea txanda hasi baino ordu-laurden aurretik. Aurrez zehaztutako une horretan ez badago, banatzailea sistematik bota egingo da, eta ezingo du hurrengo ordura arte lanik egin.

Hori guztia algoritmo anitzen bidez antolatzen da. Gailu horren zati bat ospearen sistemek osatzen dute; hau da, aplikazio horren funtzio horri esker, zerbitzua kontratatu duenak banatzaileek eskainitako zerbitzua ebalua dezake, eta, horrela, gainerako lankideen ondoan zein posiziotan dagoen zehazteko kalifikazio bat sortzen da.

Balorazioa positiboa bada, ordu eta lan-karga gehiago izateko aukera izango du. Negatiboa bada, ordea, penalizazioa izango du edo baita jardura debekatzea edota deskonektatzea.

Rider legearekin zerbait aldatu bada ere, algoritmoek oraindik kutxa beltz moduan jarduten dute; alegia, oso zaila da zer-nolako aldagaiak neurtzen dituzten jakitea. Aldagai horien inguruan dakigun apurra honako hau da: entregatzeko abiadura, konexio-orduak, konprometitutako orduetan disponibilitatea izatea, astean egindako lan-kopurua eta bezeroen ebaluazioa.

Beste faktore bat geokokapena da, uneoro aktibatuta egoten dena. Plataformek badakite banatzailea non aurkitzen den eta ibilbide bakoitzean zenbat denbora inbertitzen duen.

Geokokapena banatzaileak hiriko lurraldean zehar banatzeko erabiltzen da. Enpresak banaketa-eremu jakin batzuk zehazten ditu, GPSak hartzen dituen muga batzuekin. Modu horretan, eremu horretarako esleituta ez daudenei hor lan egitea galarazten die eta esleitutako eremura konektatzen ez direnak kanporatu egiten ditu.

Horrek guztiak funtziona dezan, plataformek banatzailearen profil jakin bat behar dute, edozein baldintza onartzeko prest dagoena lan egin ahal izateko. Beharrean aurkitzen den eskulana behar dute, ahalik eta gehien lan egiten duena, kexatzen ez dena, antolatzen ez dena eta ahotsik altxatzen ez duena; hau da, jendetza kaltebera eta diziplina handikoa. Eta plataformek jende-masa kaltebera horiek bilatzen dituzte. Horregatik gehienak migratzaileak dira, eta gero eta gehiago administrazio-egoera irregularrean aurkitzen dira. Hor jokoan sartzen dira **alokatutako kontuak**.

2017an, etxez etxeko banaketa-merkatua esponentzialki hazten ari zenean, sekretu hutsa ziren jada. Hain zuzen ere, identitatea ordeztzea da kontua: autonomoen erregimenean alta emanda dagoen banatzaile batek, plataforma batean edo bat baino gehiagotan kontua izanik, saioa egiteko gakoa ematen dio beste pertsona bati, tarifa finko baten



edo fakturatutakoaren ehuneko baten truke. Urteak pasa ahala, masifikatzen joan dira eta normaltasun-maila batera iritsi. Alokaturako kontuak WhatsApp bidez, Facebook, milanuncios edo eBay-n eta nonahi eskaintzen dira.

Kontuak dituztenek gehien errentabiliza ditzaketenak alokatzen dituzte eta besteetan lanean geratzen dira. Izan ere, ospe-sistemak direla-eta, kontu bakoitza bere ezaugarrien arabera baloratzen da, ez baita gauza bera Glovoren kontu bat 100etik 98ko puntuazioarekin edo 85eko beste bat; ez dira gauza bera ere Uber Eats-en eta Just Eat-en kontuak. Glovon, 98ko puntuazioa izanda, asteko ordutegi zabala eta eskaera-fluxu etengabe samarra edukiko da; beraz, probetxu handiagoa atera ahal izango zaio kontuari. Uber Eats-en, aldiz, eskaera-fluxua txikiagoa da.

Horrek guztiak esan nahi du **alokatutako kontu batekin lan egiten duenak kontu propioa duenak baino are gehiago errenditu behar duela** irabazitakoaren ehuneko bat ordaintzeaz gain, alokairuari eusteko produktiboa dela erakutsi behar duelako.

Ondorioz, alokatutako kontua duten langileek, berehalako premia-egoeran daudenez, ia egun osoa kanean igarotzen dute, asteko zazpi egunetan. Era horretan, alokatutako kontuak izateak lehia muturreraino eramaten du. Erraza da ulertzea plataformek zergatik beste aldera begiratu duten eta horiek saihesteko zergatik ezer egin ez duten.

Kapitulu hau ixteko, sektoreko enpresan nagusiari erreparatu behar diogu; hauda, Alemaniako Delivery Hero erraldoiari. Duela gutxi, gainera, Espainiako Glovo enpresa nagusiaren kontrola bereganatu du. Delivery Hero nazioartean hedatzeko estrategia indartsu batean murgilduta dago, eta janaria etxez etxe bidaltzeko sektorea mundu-mailan menderatu nahi du. 2021. urtean, 4.257 milioi euro irabazi zituen, eta, egun, 26.0000 milioi euroko burtsa-kapitalizazioa du. Zifra horietan, 2021ean 749 milioi euroko galerak ezkututzen badira ere, hori ez da arazoa. Akziodun nagusiak inbertsio-funtsak eta arrisku-kapitala dira.



Sukalde eta supermerkatu mamuak

Delivery, munduarekin lotuta, gero eta sukalde eta supermerkatu mamu gehiago sortzen ari dira.

Sukalde mamuak edo *dark kitchens* delakoak era guztietako janaria prestatzeko egokitutako lokalak dira. Txikiak edo handiak izan daitezke, erdigunean edo kanpoaldean egon daitezke, komunikazio-bide handietatik gertu, industriguneetan edo etxebizitzaren behealdean. Formatua aldatzen da, baina kontua da etxez etxeko banaketa-plataforma bateko *riderrak* eramaten duen janaria prestatzeko leku bat edukitzea. Sukalde bat izaten dute, ontziratze zona bat eta banatzaileek hartzeko beste gune bat. Lokal horiek jatetxeen marka zuria izan daitezke, *delivery-arekin* loturiko negozio independentea edota etxez etxe banatzeko plataforma propioen barruan integratuta egon daitezke.

Uste da etxez etxe banatzeko online eskaeren %25 era horretako lokaletan kudeatzen dituztela. Ehuneko horrek hazten jarraituko du epe labur eta ertainean, eta horrek esan nahi du etxez etxeko elikadura-negozioa hankaz gora jarriko dela. Adibidez, Unilever Food Solutions (UFS), sukaldaritzaren sektorea hornitzen duen Unilever-en besoa, sukalde mamuen hazkundea bultzatzen ari da. Enpresa horiek aitortzen dute elikadura-enpresentzat lan egiteko modu gero eta garrantzitsuagoak izango direla. Ikus ditzagun zenbait adibide.

Coocció partekaturiko sukalde mamuak egiten lehen enpresa da Estatuan; hau da, sukalde anitzeko lokalak, eta, bertan, eramateko janaria prestatzen dute hainbat lagun/enpresek. Haren web gunean agertzen den moduan, enpresak Bartzelonan dituen lokalak egun osoan irekita daude, urteko egun guztietan. Coocciók era horretako sukaldeak jartzeko higiezinak prestatuta ditu, eta Bartzelonakoek hiriko 40 jatetxe baino gehiagori zerbitzatzen diote. Alegia, eramateko janaria eskatzen diozu jatetxe bati, baina ez dizu jatetxe horrek prestatzen Cooccióren sukaldeitsuak baizik. Hor lan egiten duen enpresa esanguratsuenetariko bat Glovo da, eta horietako espazio batzuk alokatzen ditu enpresa interesatuei azpierreant emateko. Glovok eksklusibotasun-kontratu bat sinatzen du azpierreant emandako negozio horien banaketan, eta %40ko komisioa jasotzen du.

Uber Eats-ek oraindik ez du zuzenean integratutako zerbitzurik espainiar Estatuan, baina kalkulatu da 100 marka birtual baino gehiago daudela bere aplikaziotik lan egiten. Uber-en hasierako sortzaileetako batek, Britainiako Cooklane enpresaren bitartez, arabiar inbertsiogileengandik jasotako 400 milioi dolarren zati bat erabili zuen Madrilgo Prosperitatearen auzoan 38 sukalde mamuren konplexua muntatzeko.

Sukalde itsuen beste enpresa handi bat Cuyna eta haren sukalde mamuen sarea da. *Delibery*-rako ekipatutako eta prestatutako sukaldeak alokatzeaz eta frankizia digitalaren



zerbitzuaz arduratzen da. Lehen espazioak jatetxe edo negozioei alokatzeko zerbitzua da. Frankizia digitala, berriz, espazioa (sukaldea, logistika, eskaeren *software*, e.a.) ez ezik, eskulana ere kontratatzeaz arduratzen da. 2021. urtearen erdi aldera, Cuyna-k 1,5 milioi euroko finantzaketa-erronda itxi zuen eta 8 milioi euroko beste erronda bat ixtea espero zuen.

Sukalde mamuen leherketa hain handia denez, era horretako instalazioetan espezializaturiko lehen eraikitzailea sortu da jada. Jaime Martinez de Velascok, Cuyna-ren baterako sortzaileak, Madrilgo Deliveroo Editions delakoak eraiki zituen. Manuel Becerra, Arganzuela eta Chamartín auzoetan lan egitea planeatu zuen 18 sukalde mamuk osaturiko lokalei esker. Valentzian sukurtsal bat ere badu, eta proiektua Bartzelonan bideragarria den aztertzen ari da.

Sukalde horien garapena bat dator janaria emateko zerbitzuen gorakadarekin, aplikazioetan oinarrituta, eta eskaria gero eta handiagoa dela erakusten du. Euromonitor International-en datuen arabera, elikagaiak entregatzeko zerbitzuaren salmenta globalak mukuruka bikoiztu ziren 2014 eta 2019 artean, eta kontsumitzaileen %52ak dio eroso sentitzen direla etxetik etxeko banaketa soilik eskaintzen duten jatetxeetan, hots, sukalde mamuetan, eskariak eginez.

Hala eta guztiz ere, sukalde mamuak zorabiatzeko abiaduran zabaltzen diren aldi berean, kritikak ere hala zabaltzen ari dira. Hasteko, lokal horiek kokatzen diren lekuetako auzo-elkarteek kritikatzeko dituzte, zarata, usainak, *rider-en* kontzentrazioa, e.a. direla-eta, eta negozio horrekin loturarik ez duen sukaldaritzaren sektoreak ere bai, lokal horiek lehia desleialtzat hartzen dituztelako, haiei eskatzen zaizkien baimen eta kontrol guztiak ez izateagatik.

Supermerkatu mamuen kasuak sukaldeen antzeko logika jarraitzen du. Lokal horietan elikagaiak gordetzen dira, baina bezeroak online eskarien plataformak dira. Beraz, ez dago bezero fisikorik, eta ez daude herritarrentzat irekita, baizik eta soilik *picker-ek rider-ei* entregatzen dizkieten *online* eskaerak artatzen dituzte.

Supermerkatu mamuen bi enpresa nagusiak Getir eta Gopuff dira. Getir-ek Turkian du egoitza, eta bertan sortu zen 2015ean. 2021ean, Europako beste bederatzi herrialdetara hedatzen hasi zen, baita Espainiar Estatura ere. Gopuff-ek basea Estatu Batuetan du. Horiz gain, badira beste konpainia batzuk; esate baterako, Glovo, Glovo Express-ekin; edo Amazon, Amazon Fresh-ekin.





ONDORIOA ETA PROPOSAMENAK

Ikusi dugu lan-prekarietatea ez dela ustekabea, ez eta puntuala ere, logika oso zehatz bati erantzuten baitio eta elikadura-sistema globalizatuak funtzionatzeko dinamen ezinbesteko zatia baita. Espainian ez zen elikaduraren esportazio-miraririk izango lan-esplotaziorik gabe. Era horretan, funtsezko kausei aurre egiteko eta egoera iraultzeko, gutxienez lau eremutan jardun beharra dago.

► ABLEren jarduera debekatzea

Azterketa honen ondorioetako bat da zaila izango zela nekazaritzako elikagaien sektorean egun dagoen lan-prekarizaziora iristea ABLEak existitu izan ez baziren. Gainera, ikusi dugunez, araudi-mailan gertatzen ari diren aurrerapenen aurrean ihesbideak dira enpresentzat.

Irtenbide erreal eta iraunkor bakarra haien jarduera debekatzea da eta horiek sortzeko 1994an argi berdea eman aurretik lan-arloan zegoen egoera berreskuratzea. Lan-prekarizazioan ez da lan-araudi eraginkorrik eta hobekuntza esanguratsurik gertatuko ABLEak existitzen diren bitartean.

Beharrezkoa da funtzio publikoaren eskusibitatea berreskuratzea langileei lanpostua emateko eta aldi baterako lanpostuak kudeatzeko agentzia gisa.

► Lan-baldintza duinak eta bidezkoak erreklamatzeko, zehazki:

- **Langile migratzaileei buruzko LANeren 1975eko 143. Hitzarmena** berrestea (xedapen osagarriak).
- **Nekazaritzako segurtasunari eta osasunari buruzko 2001eko Hitzarmena** berrestea.
- **Langile Migratzaile guztien eta haien Senideen Eskubideak Babesteari buruz Nazio Batuek emandako Nazioarteko Konbentzioa** berrestea (1990).
- **Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) Plan Estrategiko Nazional** berrian, **gizarte-baldintzak** xedatzea Europako Kontseiluak, Batzordeak eta Parlamentuak ezarritako baldintzetan, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrez aplikatzeko.
- **Kontrolatzeko eta koordinatzeko mekanismoak** sartzea lan-agintarien eta NPBren laguntzen kudeaketan eskumena duten erakundeen artean, gizarte-baldintzak nahiz ezarritako zehapenak gauzatzearen.



- Lan-agintariei behar adina **baliabide ekonomiko eta giza baliabide** ematea, nekazaritzan lan egiten duten pertsonen lan egiteko, osasunerako eta etxebizitzarako duten eskubidea errespetatzea bermatze aldera, Estatuko, Europako eta nazioarteko zuzenbideak ezarritako terminoetan.
- NPBren onuradunentzat, sektorean lan egiten duten pertsonen lan- eta gizarte-eskubideen arloan **prestakuntza eta aholkularitza emateko ekintzak** abian jartzeko behar adina baliabide sartzea.
- Sasoikako langilea **jatorrian kontratatze**ko baldintzak ezabatzea; hau da, langilearen egoera zibila edo adingabeko seme-alaba bat ardurapean izatea bezalako baldintzak nahiz tratu-berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioak urratzen dituen beste edozein baldintza.
- Kontratatu aurretik, **langileentzako informazio-kanpaina** bat abian jartzea Espainiako Estatuan izango dituzten eskubideen eta horiek gauzatzeko moduaren inguruan.
- **Lan Ikuskaritza indartzea** lantalde bat sortuta, nekazaritzako uzta biltzeko kanpainetan zehar Lan Ikuskaritzarentzat jarduteko plan bat egiteko, kontratatutako pertsona-kopuruaren eta sektoreko nekazaritza-enpresen izaeraren eta garrantziaren arabera. Era berean, plan horrek genero-ikuspegi espezifikoak izan behar du, zenbait eremu eta sektoretan, kontratatutako sasoikako pertsonak emakumeak izaten baitira.
- **Eskubide-abusuak salatzeko mekanismoak** hobetzea, langileei arreta eta aholkularitza eskaintzeko talde independentea sortuta, egun daudenetatik erabat bereizia, erakunde patronalen mende daude-eta zuzenean. Talde independente horrek **arreta-baliabide espezifikoak** eta bitartekari eta aholkulari talde bat izango lituzke. Arlo horretan, Berdintasun Ministerioak eskumenak izan ditzake. Emakumeei sarrera librea bermatu beharko litzaieke; adibidez, autobusa. Era berean, kontsulten konfidentzialtasuna eta anonimotasuna bermatu beharko litzaieke.
- Prebentzio-neurri gisa, Barne Ministerioak Polizia eta/edo Guardia Zibileko agenteei **ustategietara bisitak** egiteko jarraibideak ematea, zer-nolako baldintzak dauden egiaztatzeko. Ofizioz egin dezatela, erasotzaileak, jazarleak edo esplotatzaileak egon daitezkeen zigorgabetasunaren pertzepzioa etete aldera.
- **Emakume langileen kontrako indarkeria-egoeren aurrean prebenitzeko eta babesteko** plan eraginkorra egitea; era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren



epaitegiek eta instrukziokoek emakume jornalarietara honako hauetan aitortutako eskubideak bermatzea: biktimaren estatutuaren lege organikoa, genero-indarkeriari buruzko legea (babes-agindua), gizakien salerosketaren aurkako 2011/36/EB Zuzentaraua eta Istanbulgo Hitzarmena.

- Berariaz kontuan hartzea lan-baldintzekin engainatuta emakumeek Espainiako Estatura lanera etortzea onartzea **lan-esplotaziorako salerosketa** dela.

► **Borroka migratzaileak eta feministak**

Generoa eta migrazioa bezalako bi aldagaiak gabe ezingo litzateke ulertu egungo lanaren prekarizazio oso azkarra. Beharrezkoa da lan-prekarietatearen aurkako borroka inbrikatzea borroka migratzaile eta feministekin.

► **Elikadura-sistemaren aldaketa bultzatzea**

Txostenean zehaztu eta hemen laburtu ditugun lan-prekarizazioaren modu guztiak planetari eta bertako biztanleei 60 urtetik gora alderik suntsigarriena erakusten ari den eredu baten parte dira. XXI. mendearen hasiera honetan, behin betiko ahituta dagoela erakutsi du. Tokiko elikadura-sistemarako, agroekologikoetarako eta familiaren produkzio-oinarrirako trantsizioa erreklamatu behar da.

Elikagaiak kontsumitzeko modu berriei dagokienean, delivery-a lantza-puntetako bat izanik, gauza bera gertatzen da. Delivery elikadura globalizatuak ezin du bizirik iraun lan-esplotaziorik gabe. Etxez etxeko janari-ereduak egin daitezke, enplegu duinean eta egonkorrean oinarrituak, tokiko elikadura-sistemetatik datozen elikagaiak hornituaz.

Ondorioz, beharrezkoa da elikadura-mailako kontratu sozial berri bat egitea, tartean dauden eragileak trantsizio hori egitera konprometituko dituen.







comunicacion@justiciaalimentaria.org

justiciaalimentaria.org/campana/exporta-explota-me-explo/

